

«Donald Trump Barack Obamaren, lehen presidente beltzaren, ondorioa da»

Mikel Reparazek mende laurden darama kazetaritza (Arbizu, Nafarroa, 44 urte). Mikel Ayestaran ikaskidea-rekin hara eta hona bidaiatzen hasi zen (Ayestaran EITBko Ekialde Hurbileko berriemaile da egun), eta idazteko ohitura bazuenez, nazioarteko kazetari bilakatu zen. Lau kontinente-tan ibili da kontalari, zenbait txoko arriskutsuak oso: Georgiaren eta Errusiaren arteko gerra, Afganistango muga irailaren 11ko Dorre Bikietako era-soaren ondoren, Libia... Ez du, dena den, gerra kazetaritzat jo-tzen bere burua. Lanbide adik-tiboa omen hori, baina esparru zabalagoetan kokatzen du bere jarduna: gatazka sozialak, hau-teskundeak, bake prozesuak... Bilboko EITBko egoitzan egiten du lana egun, nazioarteko gaiak koordinatzen. “Las grie-tas de América” liburua argita-ratu berri du (Ediciones Penin-sula), AEBetako jendarteko gatazkak hizpide dituen konta-kizuna. Laster AEBetara buelta-tuko da, EITBn azaroaren 3ko hauteskundeak kontatzeko.

Prentsa idatzian, irratian eta telebistan aritua zara, orain «Las Grietas de América» li-burua argitaratu duzu. Nola-tan?
Ikus-entzunezko komunikabi-deetan pieza gehienak minutu edo minutu eta erdikoak dira. Pieza horietatik kanpo milaka eta milaka datu eta istorio ge-ratzen dira, inon kontatu ezin dituzunak. Niretzat obsesio bat izan da, AEBetan bost urtez ko-rrespontsal izanda, zenbat kontu geratu zaizkidan zintzi-

MIKEL REPARAZ

NAZIOARTEKO KAZETARIA

Mende laurden darama nazioarteko kazetari, eta AEBetako jendartearen arrakalak aztertzen dituen «Las grietas de América» liburua argitaratu du. Azaroaren 3an hauteskundeak dira han, eta Trump berriro irabazteko gai omen da.

Andoni Urbistondo

lik. EITBn halako dokumental luzeak egin izan ditut, Pablo Ibarrena heriotzaren korrido-rean, adibidez, eta nire hasiera-ko asmoa halako dokumental sail bat egitea zen. Ez da posi-ble izan, eta azkenean liburuan jasota geratu dira eguneroko zurrunbiloak irentsitako hain-bat kontu.

Zer moduzko esperientzia izan da liburua idaztea?
Gogorra. Bi urte luze eman di-tut. Bigarren edizioa ere salgai dago dagoeneko. Jendeak gus-tuko duela dirudi.

Liburuak AEBetako gizartea-ren erradiografia du ardatz. Bost urte egin zenituen han korrespontsal. Esperientzia ona?
Oso ona, bai sendiarentzat (emaztea eta bi seme ditu), baita profesionalki ere. Urte oparoak izan dira. Pertsonalki gauza politak bizi izan nituen, adibidez Kuba, Raul Castro eta Obama administrazioaren ar-teko harremanak, AEBek Ku-ban enbaxada jarri zutenean, Guantanamo egon nintzen, Alaskan inuitekin klima alda-ketari buruzko erreportajeak egiten... 50 estatuak bisitatu nituen, eta bidaia horietan bi-zitakoa islatzen da liburuan.

Zergatik sortzen du halako li-lura berezia AEBetako gizar-teak gudan? Munduko demo-kraziarik zaharrena da, baina zure liburuan agerikoa de-nez, inperfekzio asko dituen ere bai.
Hegemonia kultural baten on-dorioz. Kulturalki AEBetako sa-telite bat gara, gustatu edo ez. Azken hamarkadetan AEBek hegemonia ekonomiko, politi-ko eta kulturala izan dute Men-

debaldean, eta gu Mendebalde horretako parte garen heinean orbita horretan izan gara. Dena den, ez dakigu AEBak nolakoak diren benetan. Liburuarekin nazio hari buruz eduki dezake-gun irudia desmitifikatu nahi izan dut, baina ez erretratu ilun edo txar soil bat eginez. AEBetan gauza onenak egiteko gai dira, baina baita txarrenak ere. Aspaldiko gatazka histori-ko bat dute han, gatazka politi-ko konpondu gabea, eta horrek gizartea, politika, ekonomia... Dena baldintzatzen du.

Ze irudi dugu gurean AEBei buruz, eta zer irudi ekarri ze-nuen zuk etxera bueltan?
Han nintzela aurrejuzgu pilo bat aldatu zitzaizkidan AEBe-kiko. Txarrak eta onak. Euro-patik hango gizarteari lente europarretik begiratzen diogu, baina han bizi behar da berta-ko balore, printzipio eta aniz-tasunaz jabetzeko. Ez dauka batere zerikusirik Appalache mendietako estatubatuar ba-tek, *deep south*-eko batekin (hego sakona), edota Kalifor-niako kostaldeko beste bate-kin. Colin Woodarden “Ameri-can Nations” liburuan Europatik AEBetara iritsitako hainbat kulturak AEBetako egitura politiko eta soziala no-la baldintzatzen duten azal-tzen du ondo. New Yorkek Her-behereetako eragina dauka, New Amsterdam izan zen, merkatariek eraikitako herria. *Mid-West* (Mendebalde Erdia) eta Appalacheak Irlanda eta Eskoziako iheslari politikoek bereganatutako lurak izan zi-ren, gerra odoltsuetatik zeto-zen zeltak, eta horrek azaltzen du eskualde horretan indarke-ria, armak erabiltzeko dagoen joera. Mississippi, Alabama

eta Louisiana aldean, berriz, britainiar esklabista eta jaun-
txo latifundistek Karibetik
kultura zehatz bat ekarri zu-
ten, botere handiko aristokra-
zia eta familia aberatsak sor-
tzeko. Herrialdea askotarikoa
da zinez. Indigenak ikusezin
bilakatu zituzten, baina bi Da-
kotetan (Ipar eta Hego Dakota
estatuak) edo Arizonan, Nava-
jo edo Hopi herriekin, oso ga-
rrantzitsuak dira natiboak.

Egun hango jendarteko arra- kalak oso sakonak dira. Zer- gatik?

Gehienek hasieratik irauten
dute, britainiarrengandik inde-
pendizatu ziren garaitik, XVIII.
mendean. Egun, arrakalak
inoizko sakonenak dira, eta li-
buruak arrakala horiek nondik
datozen, eta azken urteetan
hainbeste zergatik sakondu di-
ren azaltzea du asmoa. Sakon-
du bada Obamaren eta Trum-
pen arteko trantsizio garaian
izan da, AEBetako une histori-
ko traumatikoenetako bat. Obamarekin zergatik? Ba
gehiengoa den populazio zu-
riak presidente beltz bat politi-
ka antiamerikarrak egiten ari
zela pentsatzen zuelako. Zuriek
euren nagusitasuna arriskuan
ikusi zuten, horrek zirkuitula-
bur bat eragin zuen, eta talde
supremazisten sorrera bikoiz-
tu. Hasieran isilpean aritu zi-
ren. Trump azaldu zenean ka-
lera irten ziren.

Arrazakeriaren arrakala al da garrantzitsuena?

Oso serioa da. *Black Lives Ma-
tter* ("beltzen bizitzak inportan-
teak dira") mugimenduaren bi-
tartez indartu da, baina ez da
azken urteetako kontua. Esku-
bide zibilen borroka ez zen sor-
tu Trumpen aurka, Obamaren
garaikoa da. Polizia gehiegike-
rien aurka sortutakoa da, eta

*«Niretzat obsesio
bat izan da;
AEBetan bost urtez
berriemaile izanda,
zenbait kontu
geratu zitzaizkidan
zintzilik. Azkenean
liburuan jasota
geratu dira
eguneroko
zurrunbiloak
irentsitako hainbat
kontu»*



batez ere sakelako telefonoekin
dena argitara atera zen unetik.
Ikusten ez genituen gauzak
ikusten hasi ginen 2012-2013
inguruan. Poliziak gazte bel-
tzak nola hiltzen zituen, alegia.
Hor sortu zen Black Lives Ma-
tter. Horrek azaltzen du nola
Trump Obamaren ondorioa
den, neurri batean. Lehen pre-
sidente beltzak sortutako egoe-
raren ondorioa da Trump.

**Kwame Rose liburuko prota-
gonista nagusietako batek,
argi esaten du: «Obama da
gerta zekigukeen gauzarik
txarrena». Eta Rose bera bel-
tza da...**

Bai, Black Lives Matter mugi-
menduko aurpegi ezagunene-
takoa Baltimore estatuan.

**Obama ez dute asko maite
beltzek...**

Ez. Batzuek ironia gehiagore-
kin aipatzen dute, besteek iro-
niarik gabe. Obamarekin espe-
rantza handia zutela zioten.
Bere lehen lau urteetan *hope*
("esperantza") eta *yes we can*
("ahal dugu") gisako leloak oso
ezagunak egin ziren. Denok si-
netsi genituen, baina bigarren
lau urtekoan Obamaren ospea
jaitsi egin zen, eta gutxiengoa
den komunitate beltzak ikusi
zuen Obamaren promesak ez
zirela bete, eta batez ere, ez zi-
rela beteko. Eskubide zibilen
gaian, pobrezian, lanpostue-
tan, poliziaren gehiegikerien
aferan... Suzko armen kontrola
ere ez zuen ukitu... Hor komu-
nitate beltzaren haserrea piztu
zen. 2008ko Obamaren diskur-
toa bizi izan nuen Chicagon
aurrez aurre, eta hunkitu egin
nintzen. Han ginen kazetariok
uste genuen gatazka sozial eta

politikoa, arrazakeria bukatu
egingo zela, baina ez zen hala
izan. Horregatik esaten dute
Kwame Rosek eta bera bezala-
ko askok Trump izan dela gerta
zekiekeen gauzarik onena,
behingoz supremazismo zuria-
ren benetako aurpegia ikusi
dutelako, maskararik gabe.

**Obamak ez zuen egin, ez zio-
ten utzi... Zer gertatu zen be-
netan, zein da zure iritzia?**

Hori da benetako galdera. Pro-
mesak zergatik ez zituen bete?
AEBetako sistema politikoa oso
sistema presidentzialista da,
baina Kongresuak kontrol han-
dia dauka. *Check and balance*
ereduak funtzionatzen du, bo-
tere banaketak, eta presidente-
ak ezin du nahi duen guztia
egin. Armen kontrolaren gaian,
adibidez. Kongresuaren ozto-
poa gabe ere Obamak badu



Argazkiak: Aritz LOIOLA | FOKU

puntu ilunik. Trump ikusten dugu immigrazioaren aurkako presidente bezala, baina Obama bera izan da, historia osoan, immigrazio alorrean, etorkin gehien deportatu duen presidentea. Bi milioi eta erdi Mexikora, non agintari federalek haurrak uzten zituzten mugaren bestaldean, gurasorik gabe, eta Gobernu Kanpoko Erakundeek hartzen zituzten, umezurtz zeudela. Nik neuk nire begiekin ikusitako egoera da hori, eta Obamak agindu zuen. Zer esan atzerriko gerrei buruz. Drone bidezko bonbardaketak nonahi agindu zituen...

Arrazakeria ekonomikoa ere badago. Mailaketa ekonomikoan, bizi baldintzen sailkapenean arrazak eragin handia dauka.

Biztanlerian gero eta aniztasun handiagoa dago, latino kopurua ere gorantz doa azkar, eta aldaketa demografikoa etorriko da pixkanaka, baina oraindik hamarretik zazpi zuriak dira. Supremazismo zuriaren erreakzioa hortik dator neurri handi batean, hegemonia, nagusitasun hori galtzeko beldur baitira. Ezberdintasun sozialak handiak dira. AEBak munduko herrialderik kapitalistena da, eta kapitalismoak pobrezia behar du. AEBetan 60 milioi pertsona pobre daude. Proportzioan, noski, beltzak askoz pobregoak dira.

Bereziki deigarria da liburuan kontatzen duzun Tulsa (Oklahoma) hiriko pasadizoa, non zuri supremazistek auzo beltz aberats bat bonbardatu zuten, zuri horiek euren nagusitasuna arriskuan ikusi zutelako.

Nire bidaietako aurkikuntzarik garrantzitsuena nagusitasun



zuriaren arrastoak nonahi topa ditzakezula da. “Black Wall Street”, Tulsako Greenwood auzoko istorioa, adibidez. Gernikako bonbardaketak du historialarientzat populazio zibilaren aurkako lehena izatearen sona, baina Tulsan, 1921ean, auzo beltz aberats oso bat deuseztatu zuten bonbekin, eta Gernikakoa baino hamasei urte lehenago.

Polizia indarkeria, inpunitatea ere bada liburuiko ardatzetako bat. Datu hau ikaragarria da: hamarkada batean 11.000 hildako eragin ditu

«Esklabotza desagerrarazi ondoren, segregazio politikak etorri ziren. Roosevelten ‘New Deal’-aren ostean, macarthysmoa, eta eskubide zibilen konkistaren ondoren, Nixonen urteak. Obamaren ondoren, Trump»

polizia indarkeriak, eta 26 polizia soilik zigortu dituzte. Bunker batean babestua dago polizia. George Floyd belaunaz ito zuen Derek Chauvin polizia bere etxean dago orain milioi bateko fidantza ordainduta. Dirutza hori, gainera, poliziaren lankideek jarriko zuten, hura laguntzeko, errugabea dela sinetsita.

Beltzei beldurra die poliziak. Bai, hori hala da. Beltz gazte bat, bere txanoarekin janzten dena... Hainbat poliziarekin hitz egin nuen liburu osatzeko, eta euren erantzuna da bel-

durra dietela. Niretzat askatutako esklaboari zaion beldurra da, “Django Unchained” pelikulan ikusten den moduan, mendeku historiko bat. Poliziek tiro egiten dute lehen aukera gisa, eurak tirokatuak izateko beldurra dutelako. Beldur hori, neurri batean justifikatua dago, AEBetan gizakiak adina su arma daudelako, baina Polizia nahieran aritzen da.

Mintza gaitzen arraza eta gatazka politikoaren jatorriaz. Historikoa omen, AEBetako demokrazia sortu zenekoa, 1776an.

AEBen sorrera ikaragarritzko aurrerapausoa izan zen munduan, haren atzetik beste demokrazia guztiak etorri zirelako. Thomas Jefferson eta George Washington pentsalari apartak izan ziren, baina jauntxo esklabistak ziren. Ekonomiaren oinarria esklaboen ustiaketa zen, eta jendartea esklabismo horretan, bertan bizi ziren indigenen genozidioan oinarrituta eraiki zen. Horrek zanpatutako gutxiengo bat sortu zuen, eta egun gutxiengo hori hor dago. Demokrazia berri hark halako armiarma sare sendo bat eraiki zuen zuriaren nagusitasuna mantentzeko, eta sare hori hausteko hamaika ahalegin egon badira ere, beti birstortzen da. Esklabotza desagerrarazi zuen Abraham Lincolnek, baina ondoren bereizketa edo segregazio politikak etorri ziren. Roosevelten *New Deal*-aren ostean, macarthysmoa etorri zen, eta eskubide zibilen konkistaren ondoren, Nixonen urteak. Obama etorri zen eta ondoren Trump. Beti gertatu da ziklikoki: zuriaren nagusitasuna ardatz duen armiarma sare hori hausteko aurrerapausoren bat ematen denean, bi atzera ematen dira ondoren. Eta ez di-

rudi armiarma sarea hautsiko denik, nagusitasun zuri hori boterearen egitura guztietan baitago: Wall Streeten, Hollywooden, polizian, espetxeetan... Justiziak, sistema berak babes-ten du supremazismo zuria.

Eta Trump presidente, 2016an. Askok pentsatu genuen arlote ahobero bat zela, baina guztiz kontrakoa diozu. Ez da ezjakin bat. Gutxietsi egin dugu, denek. Oso abila da, batez ere komunikazioan, eta hori gaurko politika munduan funtsezkoa da. Orain ere, bere gaixotasuna, covidarekin, zirku mediatiko bilakatu du, bere onerako. Trumpek hauteskundeak galdu zituen 2016an, boto kopuruan, baina AEBetan botoak baino estatu mailako diputatu banaketak, *electoral college* sistema delakoak, erabakitzen du presidentea. Presidente izan nahi duenak non irabazi behar duen jakin behar du, eta Trumpek bazekien. Beharrezko zituen boto emaileak mobilizatzen jakin zuen, biztanleria zuriaren haserrea kanalizatzen. *Obama Care* osasun politikak, 2008ko krisia, enpresen deslokalizaziotik eratorritako haserrea... Frantzia Le Penekin gertatu zen efektu bera izan zen, Pas-de-Calais edo Marseilla bezalako gotorleku komunista asko eskuin muturreko bilakatu zirela.

Zergatik du hainbeste jarraitzaile? Steve Bannonek berreskuratu-tako *The Know Nothings* mugimenduari tiraka, kultura zuri kontserbadorea bateratu du Trumpek, eta estatu kolpe demokratikoa eman zuen alderdi errepublikanoan. Alderdia bereganatu eta belaunikarazi zuen, eta hori ez du inork inoiz lortu. Ekonomiaren konfiantza

«Ezkerrak gero eta pisu handiagoa dauka, gazteen bultzadaz. Hor agertu dira Alexandria Ocasio-Cortez, Bernie Sanders bera, baina aipatu dugun armiarma sarea haustea oso zaila da»

ere lortu zuen, Wall Streetena, petrolio eta gasaren lobbyena, eta horrek konfiantza eman zion merkatuetan.

Haren 58 milioi bozkatzaileetako batzuk arrazistak dira, baina denak ez dira ergelak. Ez, ezin da halako eskema sinplerik egin. Arrazista ez dena gehiengoa dela esango nuke. Akaso denak nazionalistak direla esango nuke. Alegia, herri-tar denek, zuriek eta beltzek aukera berberak dituztela defendatzen dute, konstituzioak estatubatuar denak babesten dituela. Praktikan, baina, hori ez da horrela.

Inkestek diote Joe Biden hautagai demokratikoa 10 puntuko

abantaila duela, hauteskundeak egiteko bi aste pasatxo falta direla. Sinesgarritasunik ematen diezu inkestei?

Bai, eta garbi daukat bototan Bidenek irabaziko duela, baina inkesta nazionalak ez dute ezertarako balio. AEBetan estatu gorriak daude, errepublikanoak, eta estatu urdinak, demokratikak. Gorri horietan Bidenek ez du aukerarik, izan Idaho edo Oklahoma, eta Trumpek ez du aukerarik New York edo Kalifornian. Orduan, giltza *swing state* deituek dute, estatu erabakigarriak: Pennsylvania, Florida, Ipar Carolina, Wisconsin, Michigan, Arizona, Ohio... Horietan irabaztea da funtsezkoa. Estatu horietako inkestek diotenari begiratu behar zaio. Biden doa

aurretik, baina Trump hurbiltzen ari zaio, eta joerak oso garrantzitsuak dira.

Apusturen bat egin beharko bazenu, nork irabaziko du? Zaila, auskalo! Ez nintzateke harrituko Trumpek berriro irabaziko balu.

Biden edo Trump egon, zuk aipatutako hainbat gatazka horiek indarrean jarraituko dute luze, ezta? Bai. Alderdi Demokrata aldatzen ari da apurka. Ezkerrak gero eta pisu handiagoa du, gazteen bultzadaz. Hor agertu dira Alexandria Ocasio-Cortez, Bernie Sanders bera, baina aipatu dugun armiarma sarea haustea oso zaila da.

